

telebista ♦ irratia

'Esta es mi gente' saioa ari da prestatzen Euskal Telebista

Alicia San Juanek aurkeztuko du, eta udan emango dute, gaztelaniazko katetik

Erredakzioa / Donostia

Udako programazioari begira, hainbat saio ari da prestatzen Euskal Telebista; *Esta es mi gente* da horietako bat. Alicia San Juanek aurkeztuko du, eta pertsona ezohikoak eta egoera bitxiak izango dira saioaren ardatzak.

OSPETSUA izan ez arren, gauza bitxiak edo ezohikoak egiten dituztelako izango dira *Esta es mi gente* saioan zenbait lagun. Baina betiere arrazoi pozgarri edo onengatik. Era askotako kontuak izango dira; hala nola, lanbidea, edo *hobbya*, edo trebetasuna, edo bizimodua bitxia delako.

Gauzak horrela, beste batzuen artean, munduari bizikletaz bira eman dion gizonezko bat izango da pro-



Alicia San Juan izango da *Esta es mi gente* saioko aurkezlea.

■ ■ ■ Pertsona eta gertaera ezohikoak erakutsiko dituzte *Esta es mi gente* saioan, baina ez da kontu tristerik izango

graman, argazki ikusgarriak atera nahian hormetan zintzilikatzen den beste gizonezko bat, arroz aleak margotzen dituen beste bat, hirukotzak, txapelak urrutira botatzen dituen gizonezko bat...

Gertaera bitxiak ere erakutsiko dituzte: maitasun istorio ezohikoak, abentur-

rak, apustuak, ohiturak, maniak edota ezaugarriak.

Entretenimenduzko saioa izango da eta ia ordu bete iraungo du, 50 minutu hain justu. Alicia San Juanek aurkeztuko du. Beste saio batzuen artean *Arde la tarde* magazina aurkeztu zuen ETB2an orain dela bizpahiru urte.

■ ■ ■ Entretenimenduzko programa izango da, eta ia ordu bete iraungo du saio bakoitzak, 50 minutu hain justu

'El florido pensil' antzezlan La2 katean


■ *Tanttaka euskal antzerki taldearen lanak oso harrera ona du Euskal Herritik kanpo ere*

Erredakzioa / Donostia

TANTTAKA antzerki taldearen *El florido pensil* antzezlan Espainiako Telebistatik eskainiko dute gaur, bigarren katetik (La2), 22:45etan. Antzokietan izugarriko harrera ona du obra horrek, Euskal Herritik kanpo ere bai. Horren adierazgarri, gaur La2 katetik emango dute. Eta joan den ostiralean ETB1etik eman zuten.

Andres Sopenaren obran oinarrituta egokitu du obra Tanttakak. Gerra Zibilaren osteko garaian kokatutako istorioa kontatzen du. Garai hartako eskola txiki batean jazotako gora-beherak azaltzen ditu: urte haietako abestiak, komikiak, irrat-saioak, irakasleak...

Antzerkilanaren zuzendaria Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo dira. La2 kateak antzerkiari eskaintak tartean emango dute.



El florido pensil antzezlanaren irudi bat.

laburrean

'Al filo de lo imposible' saioa saritu dute

Sebastian Alvarori 1999ko Seguro saria eman diote. TVE Espainiako Telebistako *Al filo de lo imposible* abentura saioaren zuzendaria da Alvaro, eta hain justu programa horretan egindako lanagatik eman diote saria. Izan ere, munduko hiru poloetan izan da *Al filo de lo imposible*: Ipar Poloan, Hego Poloan, eta Everesten (mendirik gailurrena delako esaten diote hirugarren polo). Eta hiru poloak filmatu dituen munduko komunikabide bakarra da. Gizartearen garapenaren alde lan egiten dituztenak saritzeko helburuarekin sortu zuen Seguro saria Espainiako Aseguruen sektoreak. Aurtengo epaimahaian beste batzuen artean izan dira Luis Marti Mingarro Madrilgo Abokatuen Elkarteko dekanoa, Ramon Sanchez Ocaña kazetari zientifikoa, Pedro Gonzalez TVEko Canal 24 kateko zuzendaria, Carlos Espinosa de los Monteros Circulo de Lectores elkarteko lehendakaria eta Fernando Fernandez de Troconiz Diputatuen Kongresuko Ekonomia Batzordeko lehendakaria.

Palestinari buruzko erreportaia 'Asteberri'-n

Palestinari buruzko erreportaia eskainiko dute gaur *Asteberri* ETB2ko saioan, iluntzean. BBCK egindako dokumentala da, eta batez ere Palestinaren gobernuaren funtzionamendua eta etorkizuna azalduko du.

PP, PSOE, IU, CIU eta EAJko ordezkariekin eztabaida saio bat prestatuko du TVEk

Ekainaren 13ko hauteskundeak direla-eta, Espainiako Telebistak (TVE) gaitzontzekoek bezala, hainbat saio prestatu ditu. Eztabaida saio bat PP, PSOE, IU, CIU eta EAJ alderdietako ordezkariekin egingo dute. Alderdi horiek atzo eman zioten TVERi baiezkioa. Hala ere, saioa noiz izango den zehazteke dute.